

**ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO KIDEGOA**

**1 OINARRIZKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK. ADIERAZI ZEIN DEN ELKARTZE-ESKUBIDEARI BURUZKO BAIEZTAPEN ZUZENA:**

- 1a) Ezin desegingo da elkarterik, edo ezein elkarteren jarduera geldiarazi, ez bada administrazio-ebazpen arrazoitu baten bidez.
- 1b) Sorturiko elkarteak erregistroan inskribatu behar dira, publizitate-ondorioetarako bakarrik.
- 1c) Elkarte oro eratzeko, beharrezkoa da administrazio-baimena lortzea.
- 1d) Elkarte paramilitarrak eratzeko, beharrezkoa da baimen judiziala lortzea.

**2 KONSTITUZIOAREN ARABERA, ONDORENGO HAUETATIK ZEIN EZ DA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN JARDUERA-PRINTZIPIOA?**

- 2a) Berehalakotasuna.
- 2b) Deskontzentrazioa.
- 2c) Deszentralizazioa.
- 2d) Hierarkia.

**3 ONDORENGO ESKUBIDEETATIK, ZEIN DA KONSTITUZIOAREN I. TITULUKO 2. KAPITULUKO 1. ATALEAN JASOTAKO OINARRIZKO ESKUBIDEETAKO BAT?**

- 3a) Jabetza pribaturako eta oinordetzarako eskubidea.
- 3b) Lanerako eta norberak nahi duen lanbidea edo ofizioa aukeratzeko eskubidea.
- 3d) Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea.
- 3d) Langileek eta enpresaburuek gatazka kolektiboko neurriak hartzeko duten eskubidea.

**4 ONDORENGO HAUETATIK ZEIN EZ DA ERAKUNDE PUBLIKOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ANTOLAMENDU- ETA FUNTZIONAMENDU-LEGEAREN ARABERA?**

- 4a) Erakunde autonomoak.
- 4b) Enpresa-entitate publikoak.
- 4c) Estatu-agentziak.
- 4d) Administrazio publikoaren partaidetza nagusi ez duten merkataritza-sozietateak.

**5 NORK KONTROLATUKO DITU, ORO HAR, AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERREGELAMENDU-ARAUAK?**

- 5a) Konstituzio Auzitegiak.
- 5b) Estatuko gobernuak.
- 5c) Kontuen Auzitegiak.
- 5d) Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioak.

**6 MERKATARITZA-, ZIGOR- ETA ESPETXE-ARLOETAKO LEGEDIA**

- 6a) Estatuaren eskumen eksklusiboa da.
- 6b) Autonomia-erkidegoek beren gain har dezaketen eskumena da, nork bere estatutuan.
- 6c) Ez da aipatzen Konstituzioan.
- 6d) Autonomia-erkidegoen eskumen eksklusiboa da.

**7 KONSTITUZIOAK ESPRESUKI ESTATUARI ESLEITZEN EZ DIZKION GAIEN ESKUMENA**

- 7a) Autonomia Erkidegoen esku geratuko da beti.
- 7b) Estatuaren esku geratuko da, autonomia-erkidegoek nor bere estatutuan beren gain hartzen ez badute.
- 7c) Autonomia-erkidegoen esku geratuko da, soilik baldin eta Konstituzioaren 148. artikulua 1 zenbakian espresuki jasotako gaiak baldin badira.
- 7d) Autonomia-erkidegoen zuzenbidea Estatuaren zuzenbidearen osagarri da beti.

**8 ZEIN DIRA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN FINANTZA-BALIABIDEAK?**

- 8a) Beren zerga propioak.
- 8b) Estatu-zergen gaineko errekaruak.
- 8c) Estatuak lagatako zergak.
- 8d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**9 EKONOMIA-ITUNAREN ERREGIMENA: ORO HAR, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN TOKIAN TOKIKO FORU-DIPUTAZIOEN ARDURA IZANGO DA:**

- 9a) Zergak kudeatzea, likidatzea, biltzea eta ikuskatzea, baina ez ordainaraztea.
- 9b) Zergak ordainaraztea, likidatzea eta biltzea, baina ez ikuskatzea.
- 9c) Zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, biltzea eta ikuskatzea.
- 9d) Zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea eta ikuskatzea, baina ez biltzea.

**10 AUTONOMIA-ERKIDEGOEN FINANTZAKETARAKO LEGE ORGANIKOAREN ARABERA,**

- 10a) Autonomia-erkidegoen finantza-jarduera leialtasun instituzionalaren printzipioaren arabera gauzatuko da, Estatu Ogasuna kontuan hartu gabe.
- 10b) Autonomia-erkidegoen finantza-jarduera autonomien eskumenak gauzatzeko baliabide aski izatearen printzipioaren arabera gauzatuko da.
- 10c) Autonomia-erkidegoek autonomia finantzarioa izango dute beren eskumenak garatu eta gauzatzeko.
- 10d) Erantzun zuzenak b) eta c) erantzunak dira.

**11 EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAN, ZEIN DA HAUTES-BARRUTIA?**

- 11a) Lurralde historikoa.
- 11b) Udalerria.
- 11c) Koadrila, Arabaren kasuan.
- 11d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.

**12 ZEIN DA AUKERA ZUZENA AUTONOMIA-ESTATUTUA ALDATZEARI DAGOKIONEZ?**

- 12a) Proposamena Eusko Legebiltzarrak onartu behar du, hiru bostenen gehiengoz.
- 12b) Gorte Nagusiek onartu behar dute, lege arrunt bidez.
- 12c) Beharrezkoa izango da hautesleen onespina erreferendum bidez.
- 12d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**13 JAURLARITZARI BURUZKO 7/1981 LEGEAREN ARABERA, LEHENDAKARIA HAUTATZEKO BEHARREZKOA DA**

- 13a) Ganberaren gehiengo arrunta lehenengo bozketan.
- 13b) Ganberaren gehiengo absolutua kasu guztietan.
- 13c) Ganberaren gehiengo absolutua lehenengo bozketan.
- 13d) Ganberaren gehiengo arrunta lehenengo bozketan edo hurrengo bozketetan.

**14 ZEIN ORGANORI DAGOKIO LEGE-PROIEKTUAK ONARTZEA, EUSKO LEGEBILTZARRARI IGORRI AURRETIK?**

- 14a) Lehendakariari.
- 14b) Eusko Jaurlaritzari.
- 14c) Legebiltzarreko mahaiari.
- 14d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**15 JAURLARITZARI BURUZKO 7/1981 LEGEA. ZEIN DA JAURLARITZAREN BATZORDE DELEGATUEI BURUZKO ADIERAZPEN ZUZENA?**

- 15a) Lehendakariak sortzen ditu.
- 15b) Dekretu bidez sortzen dira.
- 15c) Lehendakaria izango dute buru, eta ezingo du funtzio hori eskuordetu.
- 15d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**16 NORI DAGOKIO ADMINISTRAZIO-XEDAPEN OROKORRAK ETA EBAZPENAK EMATEA, SAIL BATI BEREZKO ZAIZKION GAIETAN?**

- 16a) Dagokion saileko buruari.
- 16b) Eusko Jaurlaritzari.
- 16c) Lehendakariari.
- 16d) Lehendakariordeei.

**17 AUTONOMIA-ESTATUTUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOARI DAGOZKION GAI GUZTIETAN ESKUMEN LEGEGILE ETA BETEARAZLEA**

- 17a) Lurralde historikoetako foru-organoei dagokie; betiere, Autonomia Estatutuan edo beste Lege batean, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideei aitortzen edo esleitzen ez bazaie.
- 17b) Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideei dagokie kasu guztietan.
- 17c) Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideei dagokie; betiere, Estatutu horretan, Lege honetan edo ondorengoetan lurralde historikoetako foru-organoei aitortzen edo esleitzen ez bazaizkie.
- 17d) Lurralde historikoetako foru-organoei dagokie kasu guztietan.

**18 AUTONOMIA-ERKIDEGO OSORAKO ERAKUNDEEN ETA BERTAKO LURRALDE HISTORIKOETAKO FORU-ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO AZAROAREN 25eko 27/1983 LEGEAREN ARABERA, ERAKUNDE HORIEK ESKUMEN ESKLUSIBOA DUTE ETA BAKOITZAK BERE DUEN LEGE-ARAUBIDEARI JARRAITUKO DIOTE ONDORENGO GAJETAN:**

- 18a) Errepideak eta bideak zaintzea, erabiltzea eta esplizitatzea.
- 18b) Errepideak eta bideak eraikitzea, zaintzea, erabiltzea eta esplizitatzea.
- 18c) Errepideak eta bideak eraikitzea, zaintzea, aldatzea, finantzatzea, erabiltzea eta esplizitatzea.
- 18d) Errepideak eta bideak planifikatzea, proiektatzea, eraikitzea, zaintzea, aldatzea, finantzatzea, erabiltzea eta esplizitatzea.

**19 NORK OSATZEN DUTE LURRALDE HISTORIKO BAKOITZARI DAGOZKION KUPOAK EZARTZEKO BATZORDE MISTOA?**

- 19a) Foru-aldundi bakoitzeko ordezkari banak, Eusko Jaurlaritzako ordezkari batek eta Estatu-administrazioko ordezkari batek.
- 19b) Foru-aldundi bakoitzeko ordezkari banak, Eusko Jaurlaritzako beste horrenbestek eta Estatu-administrazioko ordezkari batek.
- 19c) Batetik, Foru-aldundi bakoitzeko ordezkari banak eta Eusko Jaurlaritzako beste horrenbestek, eta, bestetik, Estatu-administrazioko beste horrenbeste ordezkari.
- 19d) Foru-aldundi bakoitzeko ordezkari banak eta Eusko Jaurlaritzako beste horrenbestek.

**20 LURRALDE HISTORIKOAN, ZEIN DA HERRITARREK PARTE HARTZEN DUTEN ORDEZKARITZA-ORGANO NAGUSIA?**

- 20a) Foru-aldundia.
- 20b) Batzar Nagusiak.
- 20c) Ahalzun nagusia.
- 20d) Aurreko erantzunetatik bat bera ere ez da zuzena.

**21 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 150.1 ARTIKULUAN ESATEN DENEZ, LEGE MARKOAK:**

- 21a) Autonomia-erkidegoetako arauzko xedapenak harmonizatzeko beharrezko diren printzipioak ezartzen dituzte.
- 21b) Estatuaren ahalmenak transferitzeko benetako legeak dira, autonomia-erkidegoak eskumen aldetik parekatzeko xedea dutenak.
- 21c) Autonomia-erkidegoei legea garatzeko eskubideak eman diezazkieke eskumena Estatuarena den gaitan.
- 21d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**22 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA, ZER DIRA LEGEGINTZA-DEKRETUAK?**

- 22a) Eskuordetzan emandako legeria jasotzen duten Gobernuaren xedapenak dira.
- 22b) Gobernuaren xedapen orokorrak, aparteko eta premiazko beharretan emanak.
- 22c) Gorte Nagusiek emandako lege-mailako xedapen orokorrak.
- 22d) Autonomia-erkidegoetako batzar legegileek emandako lege-mailako xedapen orokorrak.

**23 LEGEAREN KONTRAKO ARAUDIEI DAGOKIENEZ, ONDORENGO KONTROL-BIDEAK EZAR LITEZKE. ZEIN DA ERANTZUN OKERRA?**

- 23a) Administrazioak bere kabuz berrikustea.
- 23b) Dagokion errekurtsua administrazio-bidean.
- 23c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua.
- 23d) Epaileak ez aplikatzea.

**24 ESKUMENIK EZ DUEN ORGANOAK EMANDAKO ERREGELAMENDUAK ZEIN AKATS DU?**

- 24a) Erabat deuseza da.
- 24b) Deuseztagarria da.
- 24c) Baliogabetzailea ez den irregulartasuna du.
- 24d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**25 ADMINISTRAZIOAREN AUTOTUTORETZARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ZEIN DEN DEFINIZIO ZUZENA:**

- 25a) Administrazioak legezkotasun-printzipioa bazter uztea eta lege eta zuzenbideari men ez egitea da.
- 25b) Administrazioak bere egoera juridikoak bere kabuz babesteko duen ahalmena da, babes judiziala eskuratu beharrik gabe.
- 25c) Babes judizial eragingarriaren eskubidea eta legeak aurretik zehatutako epaile inpartziala alde batera uztea da.
- 25d) Botere publikoen arbitrariotasun-debekuaren printzipio konstituzionalaren aurkako jarduna da.

**26 ADMINISTRAZIO-ORGANOEN ESKUMENI DAGOKIENEZ, ONDORENGO ERANTZUN HAUETAKO BAT OKERRA DA:**

- 26a) Ordezkapenak eskumena gauzatzeko erabakigarriak diren elementuak aldatzea dakar.
- 26b) Eskumenaren titulartasuna hierarkian mendeko diren organoetan deskontzentra daiteke.
- 26c) Legez tasatutako kasuetan, xedapen orokorrak hartzeko eskumena eskuordetu daiteke.
- 26d) Administrazio publikoetako organoek eskumenak gauzatzeko eskuordetza eman diezaiekete zuzenbide pribatuko erakunde lotu edo mendekoetako beste organo batzuei.

**27 ADIERAZI ZEIN BAIEZTAPEN DEN ZUZENA, ADMINISTRAZIO-ORGANOEN ESKUMENI DAGOKIENEZ:**

- 27a) Eskuordetza edozein unetan baliogabe dezake goragoko organo batek.
- 27b) Kudeaketa-aginduan bien erantzukizuna da, bai agindua eman duen organoarena eta bai jaso duenarena, agindu den jarduera material zehatzaren oinarri izango diren egintza edo erabaki juridikoak hartzea.
- 27c) Kudeaketa-gomendioa eratzeko bitartekoa, eraginkorra izan dadin, dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar da.
- 27d) Izenpea eskuordetzan ematea eraginkorra izan dadin, dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar da.

**28 ONDOKO BAIEZTAPENETATIK, ADIERAZI ZEIN DEN OKERRA.**

- 28a) Beste administrazio batekoak diren administrazio-organoek ere bete egin behar dituzte administrazio-organoek beren eskumenak gauzatuz emandako egintzak.
- 28b) Ebazpen zigortzaileetan, izenpea ezin da eskuordetu.
- 28c) Kide anitzeko organoetako kideek eskubidea dute bilera-deia bilera baino gutxienez 2 lanegun lehenago jasotzeko.
- 28d) Idazkaria ez badago, organoaren arau zehatzek ezarritakoaren arabera ordezkatu da.

**29 INTERESDUNAREN ESKARIZ HASITAKO PROZEDURETAN, NOIZTIK HASTEN DA KONTATZEN ADMINISTRAZIOAK EBAZPENA EMATEKO DUEN EPEA?**

- 29a) Eskaera izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan sarrera eman zaion egunetik.
- 29b) Eskaerari administrazio publikoren bateko erregistroan sarrera eman zaion egunetik.
- 29c) Prozedura erabakitze eskumena duen organoak prozedura hasteko erabakia hartzen duen egunetik.
- 29d) Prozedura erabakitze eskumena duen organoak prozedura hasteko erabakia interesdunari jakinarazten dionetik.

**30 ADMINISTRAZIOAK BERE KABUZ HASITAKO PROZEDURETAN, PROZEDUROK INTERESDUNEI ONDORIO KALTEGARRIAK ERAGITEKO ARRISKUA BADAGO ETA EZARRITAKO GEHIENEZKO EPEA IGAROTZEAN EBAZPENIK EMATEN EZ BADA:**

- 30a) Ezetsizat jotzen dira, isiltasun administratibo negatiboaren ondorioz.
- 30b) Iraungi egiten dira.
- 30c) Preskribatu egiten dira.
- 30d) Artxibatu egiten dira, atzera egitearen ondorioz.

**31 ERABATEKO DEUSEZTASUN AKATSA DUEN ALDEKO ADMINISTRAZIO-EGINTZA BATEK ADMINISTRAZIO-BIDEA AMAITZEN BADU, EDO EPE BARRUAN ERREKURRITU EZ BADA:**

- 31a) Administrazioak, edozein unetan, bere kabuz berrikusi beharko du, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko kontsulta-organo baliokidearen aldeko irizpena jaso ondoren.
- 31b) Prozedura, administrazioaren kabuz hasten denean, iraungi egingo da, baldin eta hasten denetik 3 hilabeteko epean ebazpenik ematen ez badu.
- 31c) Administrazioak edozein unetan baliogabetu dezake; betiere, baliogabetze hori antolamendu juridikoaren aurkakoa ez bada.
- 31d) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.

**32 30/92 LEGEAREN ARABERA, DEUSEZTAGARRIAK DIRA:**

- 32a) Baldintza formalak betetzen ez dituzten egintzak.
- 32b) Ezarritako denboraz kanpo egindako administrazio-egintzak.
- 32c) Ordenamendu juridikoa hausten duten egintzak.
- 32d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**33 GEZURRA DA 30/92 LEGEAK HONAKO EGINTZAK ARRAZOITZEKO BETEBEHARRA EZARTZEN DUELA:**

- 33a) Arbitraje-prozedurak ebazten dituzten egintzak.
- 33b) Hautaketa-prozesu edo norgehiagoka-prozedurak amaitzen dituzten egintzak.
- 33c) Diskrezio-ahalez baliatuz emandako egintzak.
- 33d) Eskubideak aitortzeko egintzak.

**34 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN ENTZUNALDIAREN PROZEDURA EZ EGITEAK:**

- 34a) Kasu guztietan, erabateko deuseztasuna dakar.
- 34b) Kasu guztietan, deuseztagarritasuna dakar.
- 34c) Baliogabetzailea ez den irregulartasuna dakar.
- 34d) Ez dago egin beharrik legeak hala ezarritako kasuetan.

**35 ADMINISTRAZIOAREN KABUZ BERRIKUSTEKO PROZEDURA HASITA DAGOENEAN, EBAZTEKO ESKUMENA DUEN ORGANOAK ETEN AL DEZAKE EGINTZAREN BETEARAZPENA?**

- 35a) Bai, izapidetzean intzidente-arazoren bat gertatzen bada, errefusatzeari izan ezik.
- 35b) Bai, interesdunari akatsak zuzen ditzan eskatu behar zaionean.
- 35c) Bai, egintza horrek kalte konpongaitzak eragin ditzakeenean.
- 35d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**36 ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAREN KASUAN, GORA JOTZEKO ERREKURTSOA JARTZEKO EPEA:**

- 36a) Hilabetekoa da.
- 36b) 2 hilabetekoa da.
- 36c) 3 hilabetekoa da.
- 36d) 6 hilabetekoa da.

**37 ABSTENTZIOARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA:**

- 37a) Abstentzio-eskaerak ondorio automatikoak ditu.
- 37b) Goragoko organoek espedientean inolako parte-hartzerik ez izateko agindu beharko die horretarako arrazoiren bat duten pertsonari.
- 37c) Administrazio langileek parte ez hartzeko arrazoiren bat izanik jardun badute, parte hartu duten egintzak baliogabeak izan litezke.
- 37d) Administrazio langileek parte ez hartzeko arrazoiren bat izanik jardun badute, erantzukizuna ekar lezake.

**38 ONDORENGO BAIEZTAPENETATIK, BAT OKERRA DA. ZEIN? 30/92 LEGEAREN ARABERA, HERRITARREK HONAKO ESKUBIDEAK DITUZTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIKO HARREMANETAN:**

- 38a) Interesdunak badira, edozein unetan prozeduren edukiaren berri izatea.
- 38b) Prozedurari ezar dakizkiokeen arauak eskatzen ez dituzten dokumentuak ez aurkeztea.
- 38c) Interesdunak badira, prozeduretako agirien kopia lortzea.
- 38d) Diharduen administrazioak lehendik ere badituen agiriak ez aurkeztea.

**39 ADMINISTRAZIOAK INTERESDUN DELA AITORTZEN DIO INTERES SOILA ARGUDIATZEN DUENARI:**

- 39a) Inoiz ez.
- 39b) Beti.
- 39c) Interes legitimoa argudiatzerik ez dagoen kasuetan bakarrik.
- 39d) Ekintza publikoa espresuki aitortuta dagoen kasuetan bakarrik.

**40 30/92 LEGEAK HONAKO HAU EZARTZEN DU, PROZEDURA HASTEKO ESKABIDEA ZUZENDU ETA HOBETZEARI DAGOKIONEZ:**

- 40a) Interesdunak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko.
- 40b) Interesdunak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, eskakizuna egingo zaio hogeitau eguneko epean akatsa zuzentzeko.
- 40c) Interesdunak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, eskakizuna egingo zaio bost eguneko epean akatsa zuzentzeko, hautaketa-prozedura edo norgehiagoka-prozedura baldin bada.
- 40d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**41 ADMINISTRAZIO PROZEDURAN BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK:**

- 41a) Prozedura hasi baino lehen hartu behar dira.
- 41b) Iraungi egiten dira, kontuan hartu ez ziren gorabeherak sortzen badira izapidetzean.
- 41c) Behin-behineko neurriak hartzeko, nahikoa judizio-elementu egon behar dira.
- 41d) Prozedura iraungitzea eragozten dute.

**42 30/92 LEGEAK, IRAUNGITZEARI DAGOKIONEZ HONAKO HAU EZARTZEN DU:**

- 42a) Iraungitako prozedurek ez dute preskripzio-epaiekin zenbaketa geldituko.
- 42b) Prozedura iraungitzeak ez du besterik gabe akzioen preskripzioa ekarriko.
- 42c) Ez aplikatzeko aukera izango da, gaia hobeto zehaztu behar bada defintitzeko.
- 42d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**43 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KONTRATUEN LEGEAREN ARABERA:**

- 43a) Administrazio-kontratuak esleipen bidez formalizatzen dira.
- 43b) Kontratuak formalizatzeak beharrezko bermeak ematea eskatzen du kasu guztietan.
- 43c) Salbuespen gisa, badago aukera kontratua gauzatzeko, kontratua formalizatu gabe egon arren.
- 43d) Administrazioaren kontratuak agiri publikoan burutuko dira.



**44 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KONTRATUEN LEGEAREN ARABERA, PRESAZKO ESPEDIENTEAK ONDORENGO ARAUARI LOTUKO ZAIZKIO:**

- 44a) Kontratua formalizatu gabe egon arren, administrazioak kontratua gauzaten hasteko erabakia har dezake, behin betiko bermea eratuta badago.
- 44b) Aurreko izapideetan parte hartzen duten organoek 10 eguneko epea izango dute txostenak egiteko.
- 44c) Salbuespeneko araubide honen xede diren jardunak egin eta gero, kredituaren atxikipen egokia egingo da.
- 44d) Esleipenerako prozedura irekitzea erabakitzean, kontratua lizitatu eta esleitzeko ezarritako epeak 15 egunera murriztuko dira.

**45 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KONTRATUEN LEGEAREN ARABERA, KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI IZANGO DA:**

- 45a) Beste edozein prozeduratan kontratistaren kaudimengabezia deklaratzeko.
- 45b) Behin-behineko bermea epe barruan ez jartzea.
- 45c) Administrazioak ez ordaintzea 6 hilabeteko epean.
- 45d) Administrazioak ez ordaintzea 3 hilabeteko epean.

**46 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA ONDARE-ERANTZUKIZUNARI DAGOKIONEZ:**

- 46a) Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna bidezko da partikularrei eragiten dieten administrazio-ebazpenak baliogabetzen diren kasu guztietan (baliogabetze administratiboa edo judiziala).
- 46b) Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna aitortutzat joko da, 6 hilabeteko epean berriazko ebazpenik ematen ez bada.
- 46c) Estatuaren ondare-erantzukizuna Botere Judizialaren Lege Organikoak arautuko du Justizia-Administrazioaren kasuan.
- 46d) Kaltea hainbat administrazioek eragin duten kasu guztietan, modu solidarioan erantzungo dute.

**47 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ONDARE-ERANTZUKIZUNARI DAGOKIONEZ.**

- 47a) Kalte-ordainaren kalkuluan, merkatu-balorea nagusituko da.
- 47b) Kalte-ordaina erantzukizun-prozedurari amaiera ematen zaion eguna kontuan izanda kalkulatu da.
- 47c) Administrazioak dirutan ordaindu beharrean gauzatan ordainduko ditu kalte-ordainak, interes publikoari hala komeni zaionean.
- 47d) Bidezko diren eguneratzeei kalterik egin gabe, kalte-ordainaren zenbatekoa kaltea gertatu zen eguna kontuan izanda kalkulatu da.

**48 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ONDARE-ERANTZUKIZUNARI DAGOKIONEZ.**

- 48a) Ondare-erantzukizuneko prozeduren administrazio-ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du, baita harreman pribatu baten ondorio bada ere.
- 48b) Prozedura laburtuan 30 eguneko epean kalte-ordainak jasotzeko eskubidea aitortzen da.
- 48c) Ondare-erantzukizuneko prozedurak itundutako amaiera izan dezake.
- 48d) Administrazioak zuzenbide pribatuko harremanetan jarduten duenean, ezin zaio ondare-erantzukizunik eskatu.

**49 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 4/2005 LEGEAREN ARABERA:**

- 49a) Tratu-berdintasunak debekatu egiten du gizonen eta emakumeen tratu desberdina dakarren edozein neurri, salbuespenik gabe.
- 49b) Aukera-berdintasuna baliabide eta irabaziak eskuratzeko hasierako baldintzei buruzkoa bakarrik da.
- 49c) Pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkari-tza orekatua izango da bi sexuak %50eko ordezkari-tza dutenean.
- 49d) Euskal aginte publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan.

**50 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 4/2005 LEGEAREN ARABERA, ERANTZUN HAUETAKO BAT OKERRA DA:**

- 50a) Euskal aginte publikoek ez dute hizkera sexista erabiliko sortzen dituzten dokumentuetan.
- 50b) Euskal administrazio publikoek genero-ikuspegia baloratuko duen irizpidea sartuko dute diru-laguntzak esleitzeko irizpideen artean.
- 50c) Hautaketa-prozesuak erregulatzen dituzten arauak klausula bat izango dute, emakumeei lehentasuna ematen diena, baldin eta trebakuntzaren ikuspegiatik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, eta kidego horretan emakumeak %50 baino gutxiago badira.
- 50d) Ordezkaritza orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkari-tza baldin badu.

**51 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANPOSTU-ZERRENDAK:**

- 51a) Euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta antolatze-ko bitarteko dira.
- 51b) Funtzionarioentzat gordetako lanpostuak baino ez ditu azaltzen.
- 51c) Aurrekontu-hornidurarik ez duen plaza-kopurua zehazten du.
- 51d) Lanpostu hutsak bakarrik azaltzen ditu.

**52 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANPOSTU-ZERRENDAN, LANPOSTU BAKOITZARI BURUZ HONAKO HAUEK ZEHAZTU BEHAR DIRA:**

- 52a) Beteta dagoen ala ez.
- 52b) Bateriaezintasunen erregimena, ezinbestean.
- 52c) Lanpostua betetzeko eskakizunak.
- 52d) Hizkuntz eskakizuna, soilik baldin eta derrigorrezkoa bada.

**53 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIOEK LANPOSTUAREKIKO ATXIKIPENA GALDUKO DUTE:**

- 53a) Zerbitzu berezietako egoeran deklaritzen direnean.
- 53b) Lanpostuari uko egiten diotenean; betiere, izendapena egin zuen organoak onartzen badu.
- 53c) Zerbitzu-eginkizunetan beste lanpostu bat betetzeko izendatzen direnean.
- 53d) Norberaren eginkizunetarako baimena ematean.

**54 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, KARRERAKO FUNTZIONARIO BATEK EZ DAUKA LANPOSTUA GORDETZEKO ESKUBIDERIK:**

- 54a) Borondatezko eszedentzia egoeran deklaritzen denean.
- 54b) Ume adoptatu bat zaintzeko eszedentzia egoeran deklaritzen denean.
- 54c) Eusko Jaurlaritzako sail bateko sailburuorde izendatzean.
- 54d) Eurodiputatu aukeratzeko dutenean.

**55 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN LAN-KONTRATUDUN LANGILEEK HONAKO LANPOSTUAK BETE BEHAR DITUZTE:**

- 55a) Konfiantzazko edo aholkularitza bereziko lanpostuak, funtzionarioentzat gordeta ez daudenak. Automatikoki lanpostua utziko dute bere lan-kontrata sinatzen duen agintariak kargua uzten duenean.
- 55b) Irakaskuntzako lanpostuak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxeei atxikita daudenak, hain zuzen ere.
- 55c) Zerbitzuen funtzionamendurako beharrezko azpiegitura materiala mantentzea funtsezko funtzio duten eraikin, ekipo eta instalazioak mantentzeko eta zaintzeko lanpostu instrumentalak.
- 55d) Ertzaintzako lanpostuak.

**56 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANPOSTUEI ESLEITUTAKO HIZKUNTZ ESKAKIZUNA:**

- 56a) Derrigorrezkoa ez bada, merezimendu gisa dagokion balorazioa zehazteko balioko du, bai lanpostuen hornikuntzan, bai kanpo-hautaketan.
- 56b) Derrigortasun-data igarotzen denetik, derrigorrezkoa izango da kanpo-hautaketan, baina ez lanpostuen barne-hornikuntzan.
- 56c) Derrigortasun-data igarotzen denetik, lehiaketa bidez bete diren lanpostuetan derrigorrezko betekizuna izango da; ez, ordea, izendapen askeko lanpostuetan.
- 56d) Sartzeko hautaketa-probetan, euskara jakitea kasu guztietan baloratu beharreko merezimendua izango da.

**57 LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAK XEDATUTAKOAREN ARABERA, LANGILE FUNTZIONARIOAK HAUTATZEKO EPAIMAHAI EDO ORGANO TEKNIKOEI DAGOKIENEZ, AUKERA HAU EZ DA ZUZENA:**

- 57a) Hautaketa edo izendapen politikoko langileek ezingo dute parte hartu.
- 57b) Beren ebazpenak lotesleak dira izendatu zituen organoarentzat.
- 57c) Lanpostua lortzeko eskatutako jakintza-arloari dagokion titulua izan beharko dute kideen erdiek gutxienez.
- 57d) Izendatu dituen autoritatearekiko mendekotasun funtzionalarekin dihardute.

**58 LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAK XEDATUTAKOAREN ARABERA, LANGILE PUBLIKOAK HORRELA SAILKATZEN DIRA:**

- 58a) Karrerako funtzionarioak eta plantillako lan-legepeko langile finkoak.
- 58b) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, eta lan-legepeko langileak.
- 58c) Karrerako funtzionarioak, lan-legepekoak eta goi-karguak.
- 58d) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, behin-behineko langileak eta lan-legepeko langileak.

**59 LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAK XEDATUTAKOAREN ARABERA, BITARTEKO FUNTZIONARIOEI DAGOKIENEZ, EZ DA EGIA HONAKOA:**

- 59a) Funtzionarioei dagozkien funtzioak betetzeko izenda daitezke zeregin gehiegi edo zeregin-pilaketa baldin badago, gehienez ere sei hilabetez, hamabi hilabeteke epearen barruan.
- 59b) Lanpostu hutsak betetzeko izenda daitezke, karrerako funtzionarioek bete ezin dituztenean.
- 59c) Aldi baterako programak gauzatzeko izenda daitezke.
- 59d) Betetzen duten lanpostua ezin da amortizatu.

**60 LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAK XEDATUTAKOAREN ARABERA, KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK IZENDAPEN ASKEZ BETETZEKO:**

- 60a) Ez da nahitaezkoa deialdia dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea; aski da lantokietako iragarki-oholetan horren berri ematea.
- 60b) Lanpostu batean izendapen askez izendatutako funtzionarioak lanpostua utziko du, izendapena egin zuen agintariak kargua uzten duenean.
- 60c) Organo eskudunak nahierara (diskrezionalki) erabakiko du zein den hautagairik egokiena, lanpostua betetzeko eskatutako betekizunen arabera.
- 60d) Lanpostu batean izendapen askez izendatutako funtzionarioari aurretik betetzen zuen lanpostua gordeko zaio.

**61 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT, NORBERAREN KONTUETARAKO BORONDATEZKO ESZEDENTZIAK:**

- 61a) 15 urteko iraupena izango du, gehienez ere.
- 61b) Nahitaezkoa da funtzionarioak 5 urtean benetako zerbitzuak eman izana egun zerbitzu aktiboan diharduen administrazioan.
- 61c) Norberaren kontuetaarako borondatezko eszedentzian dagoen funtzionarioak gutxienez bi urte egin beharko ditu egoera horretan.
- 61d) Ezingo zaio horrelako eszedentziarik eman diziplinazko zehapen bat oraindik bete gabe badu, baina bai diziplina-espeditentea oraindik ebatzi gabe badago.

**62 LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAK XEDATUTAKOAREN ARABERA, KARRERAKO FUNTZIONARIOAK EZ DIRA ZERBITZU BEREZIETAN DEKLARATUKO:**

- 62a) Eusko Legebiltzarreko kide hautatzen dituztenean.
- 62b) Eusko Jaurlaritzako sailburu izendatzean.
- 62c) Beste administrazio publiko batean karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu batera sartu badira, izendapen aske bidez.
- 62d) Indar Armatuetan zerbitzuak emateko erreserbista boluntario gisa aktibatzen direnean.

**63 LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAK XEDATUTAKOAREN ARABERA, EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEARI UTZIKO ZAIO:**

- 63a) Funtzionarioa gaitasungabetez erabateko edo bereziarekin zigortzen denean.
- 63b) Espainiako nazionalitatea galtzen duenean.
- 63c) Funtzionarioari bost urtetik gorako espetxe-zigorra ezartzen zaionean.
- 63d) Funtzionarioari bi urtetik gorako espetxe-zigorra ezartzen zaionean.

**64 EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN JARDUNEKO FUNTZIONARIO IZATEA EZ DA BATERAGARRI ONDORENGO AUKERA HAUETAKO BATEKIN. ZEINEKIN?**

- 64a) Udalbatzako kide izatea erabateko arduraldiz eta ordainduta.
- 64b) Unibertsitateko irakasle elkartua izatea zatiko arduraldiz eta iraupen mugatuarekin.
- 64c) Dagokien administrazio publikoei atxikitako langileen funtzioei ez dagozkien ikerketa-jarduerak egitea modu ez-iraunkorrean.
- 64d) Enpresa edo erakunde pribatuetako administrazio kontseiluetao kide izatea, baldin eta ez badaude erlazionatuta horien jarduera eta funtzionarioak zerbitzuak ematen dituen erakundeak kudeatzen dituen jarduerak.

**65 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANPOSTURA LEHIAKETA BIDEZ SARTU DIREN FUNTZIONARIOAK:**

- 65a) Nahierara (diskrezionalaki), lanpostutik kendu daitezke.
- 65b) Lanpostutik kendu daitezke, lanpostu-zerrendaren bidez lanpostuaren edukia aldatzeak ekarritako ondorioak direla eta.
- 65c) Ezingo dira lanpostutik kendu lanpostua betetzeko gaitasunik ez izateagatik.
- 65d) Lanpostuarekiko atxikipena galduko dute uko egitearen bidez eta beste tramiterik gabe.

**66 NOR DAGO BEHARTUTA LANGILEEN AFILIAZIOAK, ALTAK ETA BAJAK JAKINARAZTERA?**

- 66a) Langilea bera.
- 66b) Enpresaburua.
- 66c) Gestoriak.
- 66d) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.

**67 ZER DA ERRETIRO PARTZIALA?**

- 67a) 1967ko urtarrilaren 1a baino lehen langileen mutualitatean kotizatu zutenek eskubidea dute erretiro partziala jasotzeko. Lanarekin bateragarria da, eta Erregimen Orokorreko pentsioa eskatu aurretik jaso ahal izango dute.
- 67b) Erretiro partziala jaso dezakete 60 urtetik gorakoek, eta 65 urte betetzera iristeko falta den urte bakoitzeko %8ko koefiziente murriztailea aplikatuko zaie.
- 67c) Erretiro partzialak aukera ematen die 60 urtetik gorakoei lanaldiaren ehuneko bat murrizteko eta pentsioaren ehuneko bera jasotzeko, trukean enpresaburuak enplegu-eskatzaile bat hartzen badu lanordu horiek betetzeko.
- 67d) Erretiro partziala jasotzeko eskubidea dute 65 urte beteta izanik 15 urteko gutxieneko kotizazioa egiaztatzen ez dutenek. Baliabide ekonomiko nahikoa izan ezean, kotizazio gabeko pentsioa emango zaie.

**68 ALDI BATERAKO EZINTASUNAREN PRESTAZIOARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA AUKERA ZUZENA?**

- 68a) Aldi baterako ezintasunaren prestazioaren kalkulua berbera da, istripu edo gaixotasun profesionalak eragin duen ala ez kontuan hartu gabe.
- 68b) Aldi baterako ezintasunaren oinarri arautzailea berbera da, baina ehuneko aplikagarria aldatu egiten da istripu edo gaixotasun profesionalak eragin duen ala ez kontuan hartuta.
- 68c) Aldi baterako ezintasunaren prestazioaren oinarri arautzailea eta ehuneko aplikagarria desberdina da, istripu edo gaixotasun profesionalak eragin duen ala ez kontuan hartuta.
- 68d) Aldi baterako ezintasunaren prestazioa kalkulatzeko erregimena bera da gaixotasun profesionalen eta laneko edo lanez kanpoko istripuen kasuan, eta desberdina eta kuantitatiboki baxuagoa gaixotasun arrunten kasuan.

**69 ZER DIRA LAN-ISTRIPUEN ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEN MUTUALITATEAK?**

- 69a) Langileen elkarte sektorialak dira, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen arloan Gizarte Segurantzaren ekintza babeslea osatzea xede dutenak.
- 69b) Gizarte Segurantzaren erakundeak dira, Gizarte Segurantzaren onuradunei prestazio osagarriak ematen dizkienak lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen arloan.
- 69c) Istripu eta gaixotasun profesionalak babesten espezializatutako aseguru-etxe pribatuak dira.
- 69d) Irabazi-asmorik gabeko enpresaburu-elkarteak dira, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakizunak kudeatzen laguntzeko sortuak.

**70 2720/1998 ERREGE DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, OBRA EDO ZERBITZU JAKIN BATERAKO KONTRATUA IRAUNGI EGINGO DA:**

- 70a) Kontratuaren xede den obra edo zerbitzua amaitzean.
- 70b) Kontratuaren xede den obra edo zerbitzua amaitzean eta, nolahi ere, hasi denetik hiru urteko epea igarotzean.
- 70c) Kontratuan nahitaez agertu behar duen amaiera-data igarotzean.
- 70d) Kontratuaren xede den obra edo zerbitzua amaitzean eta, nolahi ere, hasi denetik bi urteko epea igarotzean.

**71 EKOIZPEN BEHARRETARAKO ALDI BATERAKO KONTRATUARI DAGOKIONEZ:**

- 71a) Kasu guztietan lanaldi osokoa izan beharko du.
- 71b) Kontratutako langilea aldi baterako ezintasun-egoeran badago, kontratuaren iraupena berez luzatuko da, kasu guztietan, langileak egoera horretan jarraitzen duen bitartean.
- 71c) Ezin da luzatu.
- 71d) Oro har gehienez sei hilabetekoa izango da, hamabi hilabeteko aldi baten barruan.

**72 BITARTEKO KONTRATUARI DAGOKIONEZ:**

- 72a) Inoiz ez da lanaldi partzialerako hitzartuko.
- 72b) Lanpostu bat hautaketa-prozesua bitartean betetzeko hitzartu ahalko da.
- 72c) Ez da beharrezkoa idatzirik formalizatzea.
- 72d) Baldin eta ordezkaturako langilea ez bada lanera bueltatzen urtebeteko epean, bitarteko kontratua iraungi egingo da berez.

**73 LAN-KONTRATUETAKO PROBALDIARI DAGOKIONEZ:**

- 73a) Probaldia bitartean posiblea da lan-harremana aldeetako edozeinek eskatuta amaitzea.
- 73b) Kasu guztietan hitzartu daiteke.
- 73c) Probaldia kontratazio guztietan egoten da, kontratuan bertan berariaz kontrakoa ezarri ezean.
- 73d) Probaldiaren iraupena ez da kontuan hartzen langileak enpresan duen antzintasuna zenbatzean.

**74 HURRENGO PRESTAZIOETATIK, ZEIN DA TEKNIKOKI SOLDATAREN ZATI BAT?**

- 74a) Aldi baterako ezintasunagatiko prestazioak.
- 74b) Produktibitate-osagarri bat.
- 74c) Leku-aldatzeagatiko konpentsazioak.
- 74d) Lana dela-eta langileak izandako gastuetarako konpentsazioak.

**75 GREBA EGIN DUEN LANGILEA ALTA BEREZIKO EGOERAN DAGO GREBAK AURRERA JARRAITZEN DUEN BITARTEAN; ZER ESAN NAHI DU HORREK?**

- 75a) Greba bitartean langileak altaren betekizuna betetzen du, Gizarte Segurantzaren prestazioen ondorioetarako.
- 75b) a) egia da, eta, horrez gain, enpresaburuak enpresa-kuota baino ez du ordaindu behar, eta ez langilearena.
- 75c) Bien (enpresaburuaren zein langilearen) kotizatzeak obligazioa eten egiten da, baina grebalariak jarraituko du Gizarte Segurantzaren prestazioak jasotzeko eskubidea sortzen.
- 75d) Bien (enpresaburuaren zein langilearen) kotizatzeak obligazioa eten egiten da, eta, horrez gain, grebalariak ez du ez langabezia-sariak ez aldi baterako ezintasunaren prestazioak jasotzeko eskubiderik sortzen.

**76 ZEIN DA EUROPAR BATASUNeko ERAKUNDE ERABAKITZAILE NAGUSIA?**

- 76a) Europako Parlamentua
- 76b) Europar Batasuneko Kontseilua
- 76c) Europako Batzordea
- 76d) Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia

**77 EUROPAR BATASUNAREN EREMUAN, ZEIN DA LEGEGINTZAKO PROPOSAMENAK EGITEAZ ARDURATZEN DEN ERAKUNDE BAKARRA?**

- 77a) Eskualdeetako Lantaldea
- 77b) Europako Parlamentua
- 77c) Europako Batzordea
- 77d) Europar Batasuneko Kontseilua

**78 .....: HORREN HARTZAILEA DEN ESTATU KIDEA BEHARTZEN DU DENBORALDI JAKIN BATEAN LORTU BEHAR DEN EMAITZARI DAGOKIONEZ. DENA DEN, AGINTARI NAZIONALEK AUKERATZEN DITUZTE ERA ETA BALIABIDEAK.**

- 78a) Erabakia
- 78b) Erregelamendua
- 78c) Zuzentaraua
- 78d) Gomendioa

**79 .....: OROKORRA DA, BERE ZATI GUZTIAK DERRIGORREZKOAK DIRA ETA ZUZENEAN APLIKATZEKOAK ESTATU KIDE BAKOITZEAN.**

- 79a) Erregelamendua
- 79b) Erabakia
- 79c) Gomendioa
- 79d) Zuzentaraua

**80 GASTU ARRUNTETARAKO KREDITUEN BARRUAN HONAKO GASTUAK BEREIZTEN DIRA:**

- 80a) Langileen gastuak, funtzionamendu-gastuak, finantza-gastuak eta transferentzia arruntak.
- 80b) Langileen gastuak eta funtzionamendu-gastuak.
- 80c) Langileen gastuak, funtzionamendu-gastuak, finantza-gastuak eta kapital-transferentziak.
- 80d) Langileen gastuak, funtzionamendu-gastuak, pasibo finantzarioak eta transferentzia arruntak.

**81 HONAKO PRINTZPIOETATIK, ZEIN EZ DAGOKIE AURREKONTUEI?**

- 81a) Aurrekontu nibelatuaren printzipioa.
- 81b) Efizientziaren printzipioa.
- 81c) Zenbatekoaren araberako espezializazioaren printzipioa, gastua mugatzearena.
- 81d) Urterokoa izatearen printzipioa.

**82 GASTU BATZUK ZENBAIT URTETARAKO AURREIKUSTEN DIRA, ETA EKITALDIAN BERTAN KONPROMETITZEN DIRA HURRENGO AURREKONTU-EKITALDIETAN GAUZATZEKO. NOLA ESATEN ZAIE GASTU HORIEI?**

- 82a) Ordainketa-kreditu.
- 82b) Kreditu orokor.
- 82c) Konpromiso-kreditu.
- 82d) Kreditu zabalgarri.

**83 ZER MOTATAKO GASTU PUBLIKOAK DAUDE?**

- 83a) Ondasun eta zerbitzuetan egiten diren gastu edo erosketak, bakar-bakarrik.
- 83b) Ondasun eta zerbitzuetan egiten diren gastuak eta transferentziak.
- 83c) Transferentziak, bakar-bakarrik.
- 83d) Zergak, transferentziak eta pasibo finantzarioak.



**84 GASTU PUBLIKOAREN ONDORIOEI BURUZKO TEORIA EKONOMIKOEK DIOTENAREN ARABERA:**

- 84a) Gastu publikoak ez du inongo eraginik ez ekoizpenean ez enpleguan.
- 84b) Gastu publikoak badu eraginik ekoizpenean: gastu publikoa handitzen bada, are gehiago handitzen da ekoizpena.
- 84c) Gastu publikoak badu eraginik ekoizpenean: gastu publikoa handitzen bada, gutxitu egiten da ekoizpena.
- 84d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**85 AURREKONTUEI DAGOKIENEZ, ZER-NOLAKO GASTU PUBLIKOAK DAUDE?**

- 85a) Eragiketa arruntetarako gastuak eta kapital-eragiketetarako gastuak.
- 85b) Epe laburrerako edo epe luzerako gastuak.
- 85c) Gastu ekonomikokoak edo gastu funtzionalak.
- 85d) Eragiketa arruntetarako gastuak, soil-soilik.

**86 DEMAGUN EUSKADIKO ADMINISTRAZIOAK BESTEREN BATEKIN KONTRATUZKO LOTURA DUELA, BAINA ORAINDIK KONTRATUAREN ERAGIKETA EZ DUELA GAUZATU. NOLA ESATEN ZAIO AURREKONTUAK BETEARAZTEKO FASE HORRI?**

- 86a) Kreditu-atxikipen.
- 86b) Gastua egiteko baimen.
- 86c) Gastua egiteko asmo edo konpromiso.
- 86d) Obligazio aitortu.

**87 EUSKADIKO AURREKONTU-ERREGIMENA ARAUTZEN DUEN 1/1994 DEKRETU LEGEGILEAK XEDATZEN DUENEZ, ONDORENGO ERAGIKETA HAUETAKO BAT EZ DA "KREDITU-ALDAKETA". ADIERAZI ZEIN.**

- 87a) Kreditu-txertaketak.
- 87b) Kreditu gehigarriak.
- 87c) Kreditu-transferentziak.
- 87d) Kreditu-atxikipena.

**88 OBLIGAZIO BAT AURREKONTUAREN KITAPEN-EGUNERAKO ERREKONOZITUTA BADAGO ("O" DOKUMENTU KONTABLEA) BAINA HARTZEKODUNARI ORAINDIK EZ BAZAIO DAGOKIONA ORDAINDU, KASU HORRETAN, ZER GERTATUKO DA OBLIGAZIO HORREKIN HURRENGO URTEAREN HASIERAN?**

- 88a) Itxitako ekitaldien multzora edo hondarretara pasako da.
- 88b) Kreditu-atxikipenetara pasako da, kreditu-aldaketa eginda.
- 88c) Erabat deusez geratuko da, urterokotasun-printzipioaren indarrez.
- 88d) Errekonozitutako gastu guztiak urtean bertan ordaindu behar ditu Diruzaintza Orokorrak, abenduaren 31 baino lehen.

**89 AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN DIRULAGUNTZA-ERREGIMENAREN ARABERA, ZER DA “DIRULAGUNTZA”?**

- 89a) Funtsak ematea bai pertsoneri edo bai erakunde publiko nahiz pribatuei, kontzertatutako eragiketa jakin bat gauzatuko dela bermatzeko.
- 89b) Euskal Administrazioak beste batzuei ekarpenak egitea, aurrekontu-izendapenik ez duten zerbitzuak emateko.
- 89c) Funts publikoak doan ematea, betiere, onuradunak Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak izanda.
- 89d) Administrazioak funts publikoak doan lagatzea pertsona edo erakunde publiko nahiz pribatuei, interes sozialeko jardueraren bat sustatzeko.

**90 HONAKO KASU HAUETAN, DIRULAGUNTZA PUBLIKOA ITZULI EGIN BEHARKO DA. ZEIN DA SALBUESPENA?**

- 90a) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea.
- 90b) Kontrol-jarduketak egiten ez uztea edo oztopoak jartzea.
- 90c) Dirulaguntzaren helburua ez betetzea.
- 90d) Egiaztagiriak garaiz ez aurkeztea.

**91 ZEIN DA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA NAGUSIA EDO ARRUNTA?**

- 91a) Lehiaketa, publizitate-printzipioaren eta norgehiagoka-printzipioaren arabera.
- 91b) Zuzeneko kontzesioa.
- 91c) Enkantea.
- 91d) Kasuan kasu prozedura egokiena aukeratzen du administrazioak, ematekoa den dirulaguntzaren arabera.

**92 EAE-KO OGASUN OROKORREKO ZUZENBIDE PUBLIKOKO DIRU-SARREREI DAGOKIENEZ, HAUETAKO ZEIN DIRU-SARRERA EZ DA PUBLIKOA?**

- 92a) Foru Aldundiek Euskadiko Autonomia Erkidegoari eginiko ekarpenak.
- 92b) Zerga propioen eta prezio publikoen errendimenduak.
- 92c) Herentziaz edo dohaintzaz eskuratutakoak.
- 92d) EAEko administrazioaren zorpetze-eragiketen emaitzak.

**93 EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK EGUNERATZEKO 3/2006 LEGEAK EMATEN DUEN DEFINIZIOAREN ARABERA, ZER DIRA “TASAK”?**

- 93a) Sektore pribatuko enpresa batek emandako zerbitzu publikoetatik datozen diru-sarrerak.
- 93b) Administrazioek beren borondatez eskatu edo jaso gabe administrazioak egiten dituen jardueretatik edo zerbitzu publikoetatik datozen sarrerak.
- 93c) EAEko zergen gaineko errekarguak.
- 93d) Aurreko aukeretako bat ere ez da zuzena.

**94 EAeko sarrerez ari garela, adierazi aukera zuzena:**

- 94a) Tasak ez dira tributu-errekurtsua.
- 94b) Tasak zergak dira.
- 94c) Tasak kontraprestaziorik gabe exijitzen dira, subjektu pasiboaren kontribuzio-gaitasuna bera baita egitate zergapegarria.
- 94d) Tasak tributuak dira.

**95 BESTEEI LAGUNTZEA HAIEK ESKATU GABE. MCCLELLAND ESKOLAREN MOTIBAZIO-EREDUAREN ARABERA, JOKABIDE HORI ZEIN MOTIBOREKIN LOTZEN DA?**

- 95a) Afiliazioarekin
- 95b) Boterearekin
- 95c) Autoerrealizazioarekin
- 95d) Lorpenarekin

**96 LANGILE-HAUTAKETAN, BADAGO EBALUAZIO-SISTEMA BAT, NON ZENBAIT PARTAIDE, ZENBAIT BEHATZAILE, BILDU, ETA, BIZPAHIRU EGUNEZ, ZENBAIT TEKNIKAZ BALIATUTA, HAUTAGAIEN EZAUGARRIAK EBALUATZEN BAITITUZTE. ZEIN IZEN DU?**

- 96a) Assessment center
- 96b) In-basket
- 96c) Konduktual egituratua
- 96d) Intzidente kritiko fokalizatua

**97 EFQM EREDUAN, ZEIN IRIZPIDE LOTZEN DA ANTOLAKUNDE BATEKO ENPLEGATUAK SARITZEAREKIN ETA AINTZAT HARTZEAREKIN, ENPLEGATU HORIEK MOTIBATZEKO ETA ANTOLAKUNDEAREKIKO DUTEN KONPROMISOA AREAGOTZEKO?**

- 97a) Aliantzak eta baliabideak
- 97b) Politika eta estrategia
- 97c) Lidergoa
- 97d) Pertsonak

**98 BI DATU-MULTZO ANALIZATZEN DIRA, BATEZ BESTEKO ARITMETIKO BERAREKIN, HURRENGO ONDORIOETATIK, ZEIN DA ZUZENA?**

- 98a) Desbiderapen tipiko txikiena duen taldeak kontzentratuagoak izango ditu bere datuak.
- 98b) Desbiderapen tipiko handiena duen taldeak kontzentratuagoak izango ditu bere datuak.
- 98c) Desbiderapen tipikoak ez du inolako informaziorik ematen datuen kontzentrazioari buruz.
- 98d) Bi taldeek desbiderapen tipiko berbera izango dute, eta datuak berdin kontzentratuta izango dituzte.

**99      BESTEAK BESTE LAN-TALDE BATI BARNE INFORMAZIOA EMATEKO SORTUTAKO SARE LOKAL BATEN BARRUAN DAGOEN ORDENAGAILU-TALDEARI DEITZEN ZAIO:**

- 99a) Extranet
- 99b) Bulego birtuala
- 99c) Intranet
- 99d) Interwoven

**100     DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO 15/1999 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, DATU PERTSONALAK JASO AHAL IZANGO DIRA TRATATZEKO BAKAR-BAKARRIK:**

- 100a) Nahitaezkoak, egokiak eta baliagarriak badira.
- 100b) Ofizialak, frogagarriak eta egokiak badira.
- 100c) Egokiak eta baliagarriak badira, baina ez gehiegizkoak.
- 100d) Nahitaezkoak eta frogagarriak badira, baina ez gehiegizkoak.

## **ORDEZKO GALDERAK**

**101     ADIERAZI ERAKUNDE AUTONOMOEI BURUZKO BAIETZAPEN ZUZENA**

- 101a) Administrazio Zuzenbidez araupetzen dira.
- 101b) Zuzenbide Pribatuaz araupetzen dira.
- 101c) Ez dute diru-sarrera propiorik.
- 101d) b) eta c) erantzunak dira zuzenak.

**102     AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKO LEGEBILTZARRARI DAGOKIO:**

- 102a) Lege-proiektuak Diputatuen Kongresura igortzea.
- 102b) Konstituziokontraotasun-errekurtsoa jartzea.
- 102c) Euskal Autonomia Erkidegoan jardun behar duten magistratuak, epaileak eta idazkari judizialak izendatzea.
- 102d) Aurreko erantzunetatik, bat ere ez da zuzena.

**103     GIZONEN ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO 3/2007 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA:**

- 103a) Botere publikoek tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa beteko dute beren jardueretan zeharkako izaeraz.
- 103b) Gizonen eta emakumeen presentziari dagokionez, dena delako multzo baten osaketa orekatutzat joko da baldin eta sexu bakoitzeko pertsonen kopurua % 50 baino gutxiago ez bada.
- 103c) Pertsonaren duintasunaren aurkako sexu-izaerako edozein portaera sexu-jazarpena da.
- 103d) Haurdunaldia edo amatasuna dela-eta emakumeei tratu kaltegarria ematea sexuagatiko zeharkako diskriminazioa da.

**104 EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOETAKO KARRERAKO FUNTZIONARIOEN ERRETIROARI DAGOKIONEZ, HONAKO HAU GEZURRA DA:**

- 104a) Nahitaezko erretirorako adina 65 urte da.
- 104b) Ezin izango da inoiz jarduneko zerbitzua luzatu 65 urtetik aurrera.
- 104c) Nahitaezko erretirorako adina bete aurretik erretiratu ahal izango dira, beren borondatez, baldin eta baldintza batzuk betetzen badituzte.
- 104d) Borondatezko erretiroa hartuz gero, karrerako funtzionarioen izaera galtzen da.

**105 EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO KARRERAKO FUNTZIONARIOAK "BESTE HERRI-ADMINISTRAZIO BATEAN ZERBITZUAN" IZENENKO EGOERARARA IGAROKO DIRA:**

- 105a) Toki-administrazioko kidego edo eskala batean jarduneko zerbitzuan daudenean.
- 105b) Foru-aldundi batean langile ebentual gisa izendatzen dituztenean.
- 105c) Sektore publikoko entitateetan zerbitzuak ematen dituztenean.
- 105d) Izendapen askeko prozeduraren bitartez, beste herri-administrazio bateko lanpostu bat betetzen dutenean.

**106 GREBA-ESKUBIDEA GAUZATU DUEN LANGILEAK LAN EGIN EZ DUEN EGUNEI DAGOKIENEZ, LANGILEAK EGUN HORIETAKO ORDAINSARIA JASOTZEKO ESKUBIDEA GALTZEN DU.**

- 106a) Zuzena.
- 106b) Ez da zuzena, bakarrik galtzen ditu hilerako epemugatutako ordainsari-kopuruak (de vencimiento mensual)
- 106c) Ez da zuzena, ez ditu galtzen atsedenaldiei eta oporrei dagozkien ordainsariak.
- 106d) Ez da zuzena, greba legezkoa bada, gutxieneko soldataren besteko zenbatekoa jasoko du.

**107 ERABAKIAK HARTZEKO ZEIN PROZEDURA-MOTATAN DU EUROPAKO LEGEBILTZARRAK LEGEGINTZAKO BOTERE OSOA?**

- 107a) Legeak elkarrekin egiteko prozeduran.
- 107b) Europako Legebiltzarrak ez du legegintzako botere osorik, baina Europako Konstituzioa izango denak aurreikusten ditu.
- 107c) Elkarrekin erabakitzeko prozeduran
- 107d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**108 DIRULAGUNTZAREN BAT ITZULTZEAN, ZENBATEKOA EUSKAL ADMINISTRAZIOAREN AURREKONTUARI GEHITU BEHAR ZAIO. HALAKOETAN:**

- 108a) Dirulaguntzarentzat hasieran izendatutako gastu-aurrekontua txikitzeko izango da itzulitakoa.
- 108b) Funts-itzulketaren denez, ezin zaio aurrekontuari gehitu.
- 108c) Erakunde publikoaren sarrera-aurrekontuaren barruan jasoko da.
- 108d) Ekonomia eta Ogasun sailak aukera dauka kreditu orokorrera pasatzeko.

**109 ERRENDIMENDUA EBALUATZEARI DAGOKIONEZ, BAIEZTAPEN HAUETAKO BAT OKERRA DA:**

- 109a) Lanpostuan ikus daitezkeen egintza eta portaeretan oinarritzen da.
- 109b) Interesatuak, ebaluatutako pertsonak, ez du prozesuan parte hartzen, subjektu pasiboa baino ez da.
- 109c) Diru-kompentsazio bati lotuta egoten da.
- 109d) Bere helburuetako bat langilea motibatzea da, lana hobeto egin dezan.

**110 DATU PERTSONALAK BABESTEKO 15/1999 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKO PUBLIKO ZEIN PRIBATU HONEK EDO ADMINISTRAZIO-ORGANO HONEK ERABAKI BEHAR DU FITXATEGI BATEN TRATAMENTUAREN HELBURUARI, EDUKIARI EDO ERABILERARI BURUZ:**

- 110a) Tratamenduaren arduradunak.
- 110b) Interesatuen adostasuna egiaztatzeko ardura duenak.
- 110c) Datuak egunera jartzeko ardura duenak, eragindakoaren egungo egoerarekin bat etor daitezzen.
- 110d) Fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak.

## CUERPO SUPERIOR DE ADMINISTRACIÓN

**1 DERECHOS Y DEBERES FUNDAMENTALES: SEÑALAR LA AFIRMACIÓN CORRECTA ACERCA DEL DERECHO DE ASOCIACIÓN:**

- 1a) Las asociaciones sólo podrán ser disueltas o suspendidas en sus actividades en virtud de resolución administrativa motivada.
- 1b) Las asociaciones constituidas deberán inscribirse en un registro a los solos efectos de publicidad.
- 1c) Todas las asociaciones deberán obtener autorización administrativa para su constitución.
- 1d) Las asociaciones de carácter paramilitar deberán obtener autorización judicial para su constitución.

**2 ¿CUÁL DE LOS SIGUIENTES NO ES, SEGÚN LA CONSTITUCIÓN, UN PRINCIPIO DE ACTUACIÓN DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS?**

- 2a) Inmediatez.
- 2b) Desconcentración.
- 2c) Descentralización.
- 2d) Jerarquía.

**3 ¿CUÁL DE LOS SIGUIENTES ES UN DERECHO FUNDAMENTAL RECOGIDO EN EN LA SECCIÓN PRIMERA, CAPÍTULO SEGUNDO DEL TÍTULO I DE LA CONSTITUCIÓN?**

- 3a) El derecho a la propiedad privada y a la herencia.
- 3b) El derecho al trabajo, a la libre elección de profesión u oficio
- 3c) El derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen.
- 3d) El derecho de los y las trabajadores/as y empresarios/as a adoptar medidas de conflicto colectivo

**4 ¿CUÁL DE LOS SIGUIENTES NO CONSTITUYE UN ORGANISMO PÚBLICO SEGÚN LA LEY DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO ?**

- 4a) Los organismos autónomos.
- 4b) Las entidades públicas empresariales
- 4c) Las agencias estatales.
- 4d) Las sociedades mercantiles con participación no mayoritaria de la Administración Pública

**5 EL CONTROL DE LAS NORMAS REGLAMENTARIAS DICTADAS POR LA ADMINISTRACIÓN DE LAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS, COMO NORMA GENERAL, LO EFECTUARÁ:**

- 5a) El Tribunal Constitucional.
- 5b) El Gobierno del Estado.
- 5c) El Tribunal de Cuentas.
- 5d) La Jurisdicción contencioso-administrativa.

**6 LA LEGISLACIÓN EN MATERIA MERCANTIL, PENAL Y PENITENCIARIA:**

- 6a) Es competencia exclusiva del Estado.
- 6b) Es una competencia que puede ser asumida por las Comunidades Autónomas en sus respectivos Estatutos.
- 6c) No está mencionada en la Constitución.
- 6d) Es competencia exclusiva de las Comunidades Autónomas.

**7 LA COMPETENCIA SOBRE MATERIAS NO ATRIBUIDAS EXPRESAMENTE AL ESTADO POR LA CONSTITUCIÓN:**

- 7a) Corresponde siempre a las Comunidades Autónomas.
- 7b) Corresponde al Estado si no son asumidas por las Comunidades Autónomas en sus respectivos estatutos.
- 7c) Solamente corresponde a las Comunidades Autónomas si se trata de materias expresamente recogidas en el número 1 del artículo 148 de la Constitución.
- 7d) El Derecho de las Comunidades Autónomas es siempre supletorio del Derecho Estatal.

**8 CONSTITUYEN RECURSOS FINANCIEROS DE LAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS:**

- 8a) Sus propios impuestos.
- 8b) Recargos sobre impuestos estatales.
- 8c) Impuestos cedidos por el Estado.
- 8d) Todas las respuestas anteriores son correctas.

**9 RÉGIMEN DEL CONCIERTO ECONÓMICO: COMO NORMA GENERAL SE EFECTUARÁ DENTRO DE CADA TERRITORIO HISTÓRICO POR LAS RESPECTIVAS DIPUTACIONES FORALES:**

- 9a) La gestión , liquidación, recaudación e inspección de los impuestos, pero no la exacción de los mismos.
- 9b) La exacción , gestión , liquidación y recaudación de los impuestos pero no la inspección.
- 9c) La exacción , gestión , liquidación, recaudación e inspección de los impuestos.
